



IBILGAILUAK – INGURUMEN-IRIZPIDE SINPLIFIKATUAK

Prozedura irekiaren eta lehiaketa bidezko esleipenaren bidez kontratatzeko ingurumen-irizpideak

OHARRA: Dokumentu honek euskal sektore publikoko ibilgailuak eskuratzeko prozesuetan ingurumen-klausulak sartzeko gida izan nahi du.

Jasangarritasun Energetikoaren 4/2019 Legeak ezartzen duenez, euskal herri-administrazioek eskuratzen dituzten ibilgailuen % 100ek erregai alternatiboak erabili behar dituzte (justifikatutako kasuetan izan ezik). Legea betetzeko, erakunde kontratatzaileak energia alternatiboko ibilgailuak erosteko sortak definitzea gomendatzen da -orain dauden karga-aukeren eta aurreikusitako erabileren arabera- eta horietako bakoitzean ingurumen-irizpideak aplikatzea, ondoren adierazten den bezala.

Energiaren Euskal Erakundeak egindako gomendioek eta erregai alternatibo bakoitzaren alde onak eta txarrak laburbiltzeko taulak motorizazio-mota egokiena hautatzen lagun dezakete. Informazio hori helbide honetan dago eskuragarri:

<https://www.eve.eus/Actuaciones/Actuaciones/Administraciones.aspx#05>

Oinarrizko maila eta maila aurreratua (Ibilgailu termikoak -gasolinazkoak, dieselak, gas naturalezkoak edo PGLzkoak- eta 40 km-tik beherako autonomia duten hibrido entxufagarriak edo ez-entxufagarriak)	Bikaintasun maila (ibilgailu elektriko hutsak, autonomia luzatukoak eta hibrido entxufagarriak, 40 km edo gehiagoko autonomiarekin)
KONTRATUAREN XEDEA:	KONTRATUAREN XEDEA:
<p>Kontratu honen xedea ingurumen-inpaktu negatibo txikiena sortzen duten ekipamendua eta ezaugarriak dauzkaten ibilgailuak eskuratzea da.</p> <p>Kontratu honen xedea honako ibilgailu hauek alokairu-erregimenean (renting/leasing) kontratatzea da: ingurumen-inpaktu negatiboak murrizten dituzten eta mantentze-lanak ingurumena ondoen errespetatzeko moduan egitea ahalbidetzen duten ezaugarriak dauzkatenak.</p>	<p>Kontratu honen xedea ingurumen-inpaktu negatibo txikiena sortzen duten ekipamendua eta ezaugarriak dauzkaten ibilgailuak eskuratzea da.</p> <p>Kontratu honen xedea honako ibilgailu hauek alokairu-erregimenean (renting/leasing) kontratatzea da: ingurumen-inpaktu negatiboak murrizten dituzten eta mantentze-lanak ingurumena ondoen errespetatzeko moduan egitea ahalbidetzen duten ezaugarriak dauzkatenak.</p>
ZEHAZTAPEN TEKNIKOAK (nahitaez bete beharrekoak):	ZEHAZTAPEN TEKNIKOAK (nahitaez bete beharrekoak):
<p>Ibilgailuenak</p> <p>1. Ibilgailuak honako efizientzia ¹energetikoa izan behar du, IDAEren efizientzia energetikoaren arabera:</p>	<p>Ibilgailuenak</p> <p>1. Ibilgailuaren autonomia gutxienez X kilometrokoa izan behar du, WLTP² ibilgailuen homologazio-testaren arabera kalkulatuta.</p>

¹ IDAEk emandako sailkapen horrez gain, Trafiko Zuzendaritza Nagusiak (DGT) ibilgailuen sailkapen berri bat onartu du, Airearen Kalitaterako eta Atmosfera babesteko 2013-2016 Plan Nazionalari erantzunez. Sailkapen horrek ibilgailurik garbienak Cero, Eco, C eta B gisa sailkatzen dituen ingurumen-bereizgarri batekin identifikatzea ahalbidetzen du (www.dgt.es); ez da nahastu behar hemen eskatzen den efizientzia energetikoaren sailkapenarekin.

² Ibilgailuaren gutxieneko autonomia ezartzeko orduan (batez ere elektriko hutsena eta autonomia hedatuko elektrikoena), kontuan hartu behar da benetako autonomia ibilgailuak egin behar duen ohiko ibilbidearen arabera dela eta, beraz, gerta daitekeela WLTP test normalizatuaren arabera adierazitakoarekin bat ez etortzea, gidatzeko benetako baldintzak ez direlako homologazio-testaren baldintzen berdinak. Hiriko ibilbideetan benetako autonomia eta adierazitakoa antzekoak izan daitezke, baina hiri arteko ibilbideetan adierazitakoa benetakoa baino % 30 txikiagoa ere izan daiteke. Halako kasuetan, % 25-30 gehigarria gehitu

<ul style="list-style-type: none"> - [oinarrizko maila] gutxienez B - [maila aurreratua] A <p>Sailkapen hori "Espainian saltzen diren turismo-ibilgailuen gidaliburua" argitalpenean aurki daiteke. Webgune honetan dago eskuragarri: http://coches.idae.es/</p> <p>Egiaztapena: Proposamenean sartutako produktu bakoitzerako abal hau aurkeztu beharko da: 3 (Ikus Egiaztapenaren dokumentazioa).</p>	<p>Egiaztapena: Proposamenean sartutako produktu bakoitzerako abal hau aurkeztu beharko da: 1 (Ikus Egiaztapenaren dokumentazioa).</p> <p>2. Ibilgailuen bateriek gutxienez 160.000 kilometroan % 70etik gorako karga-ahalmenari eustea bermatu beharko dute, EN 62660 arauaren edo baliokidearen arabera kalkulatuta.</p> <p>Egiaztapena: Proposamenean sartutako produktu bakoitzerako abal hau aurkeztu beharko da: 1 (Ikus Egiaztapenaren dokumentazioa).</p> <p>3. [Ibilgailuaren birkarga erdi-azkarra edo azkarra behar izanez gero]³ Ibilgailuak baterien birkarga erdi-azkar/azkarraren aukera onartuko du.</p> <p>Egiaztapena: Proposamenean sartutako produktu bakoitzerako abal hau aurkeztu beharko da: 1 (Ikus Egiaztapenaren dokumentazioa).</p>
<p>2. Ibilgailuaren gidatzearen arabeko energia-kontsumoaren bistaratzaille edo pantaila bat izan behar du ibilgailuak.</p> <p>Egiaztapena: Proposamenean sartutako produktu bakoitzerako abal hau aurkeztu beharko da: 1 (Ikus Egiaztapenaren dokumentazioa).</p>	<p>4. Ibilgailuaren gidatzearen arabeko energia-kontsumoaren bistaratzaille edo pantaila bat izan behar du ibilgailuak.</p> <p>Egiaztapena: Proposamenean sartutako produktu bakoitzerako abal hau aurkeztu beharko da: 1 (Ikus Egiaztapenaren dokumentazioa).</p>

beharko zaio administrazioak beharrezko gisa definitutako benetakoari. Ibilgailu hibrido ahokagarrien kasuan, autonomia modu elektrikoan 40 kilometrokoa izango da gutxienez.

³ Merkatuko ibilgailu guztiek ez daukate birkarga azkarraren aukera (batez ere hibrido ahokagarriek) eta, beraz, administrazioaren beharrezkoaren arabera, ibilgailu mota horren merkaturak ikertu beharko da eta espezifikazio hori sartu ala ez.

<p>Mantentze-zerbitzua (pneumatikoak)</p> <p>3. Pneumatikoak aldatzean, horrelako pneumatikoak jarriko zaizkie ibilgailuei:</p> <ul style="list-style-type: none"> - [Oinarrizko maila] gutxienez «B» mailako efizientzia energetikoa dutenak eta gutxienez zarata «ertaina» dutenak - [Maila aurreratua] gutxienez «A» mailako efizientzia energetikoa dutenak eta gutxienez zarata «baxua» dutenak <p>Pneumatikoen etiketatuari buruzko 1222/2009 (EE) Erregelamenduaren arabera.</p> <p>Horren ordez, onartuko da, era berean, Nazio Batuetako Europarako Batzorde Ekonomikoaren (CEPE/NBE) 109. Erregelamenduaren arabera birkautxutatutako pneumatikoak jartzea. Eskaintzan zer mota erabiliko den zehaztuko da.</p> <p><u>Egiaztapena:</u> <i>Proposamenean sartutako produktu bakoitzerako abal hau aurkeztu beharko da: 4 edo5 (Ikus Egiaztapenaren dokumentazioa).</i></p>	<p>Mantentze-zerbitzua (pneumatikoak)</p> <p>5. Pneumatikoak aldatzean, «A» klaseko efizientzia energetikoa duten eta pneumatikoen etiketatuari buruzko 1222/2009 (EE) Erregelamenduaren arabera zarata «txikia» duten horiek jarriko zaizkie ibilgailuei.</p> <p>Horren ordez, onartuko da, era berean, Nazio Batuetako Europarako Batzorde Ekonomikoaren (CEPE/NBE) 109. Erregelamenduaren arabera birkautxutatutako pneumatikoak jartzea. Eskaintzan zer mota erabiliko den zehaztuko da.</p> <p><u>Egiaztapena:</u> <i>Proposamenean sartutako produktu bakoitzerako abal hau aurkeztu beharko da: 4 edo5 (Ikus Egiaztapenaren dokumentazioa).</i></p>
<p>ESLEIPEN IRIZPIDEAK:</p>	<p>ESLEIPEN IRIZPIDEAK:</p>
<p>Ibilgailuen alderdi teknikoak eta ingurumen arlokoak</p> <p>4. CO₂ gutxiago isurtzea baloratuko da (gehienez 8 puntu).</p> <p><u>Egiaztapena:</u> <i>Proposamenean sartutako produktu bakoitzerako abal hau aurkeztu beharko da: 2 (Ikus Egiaztapenaren dokumentazioa).</i></p>	<p>Ibilgailuen alderdi teknikoak eta ingurumen arlokoak</p> <p>6. Ibilgailuen autonomia handiagoa baloratuko da (km-tan) (gehienez 10 puntu).</p> <p><u>Egiaztapena:</u> <i>Proposamenean sartutako produktu bakoitzerako abal hau aurkeztu beharko da: 1 (Ikus Egiaztapenaren dokumentazioa).</i></p> <p>7. Baterien karga-ahalmen handiagoa mantentzeko bermea baloratuko da (km-tan) (10 puntu gehienez).</p>

	<p>Egiaztapena: Proposamenean sartutako produktu bakoitzerako abal hau aurkeztu beharko da: 1 (Ikus Egiaztapenaren dokumentazioa).</p>
<p>Zerbitzuaren ingurumen-arloko hobekuntzak.</p> <p>5. Baloratuko da pneumatikoek:</p> <ul style="list-style-type: none"> - [Oinarrizko maila] A mailako efizientzia energetikoa izatea; edo birkautxutatutako pneumatikoak izatea (gehienez 2 puntu). <p>Egiaztapena: Proposamenean sartutako produktu bakoitzerako abal hau aurkeztu beharko da: 4 edo 5 (Ikus Egiaztapenaren dokumentazioa).</p>	

EGIAZTAPENAREN DOKUMENTAZIOA (*):	
<p>1. Produktuaren fitxa teknikoa, modeloaren onespren-ziurtagiria edota laborategiko testaren emaitzak.</p>	<p>4. Produktuen zerrenda, bakoitzaren pneumatikoen Europako etiketatuarekin, eta kontratuak irauten duen artean erabiltzeko konpromisoaren deklarazioa.</p>
<p>2. Kontsumoen nahitaezko etiketa</p>	<p>5. Produktuen zerrenda, bakoitzaren birkautxutatutako pneumatikoen etiketatuarekin, eta kontratuak irauten duen artean erabiltzeko konpromisoaren deklarazioa.</p>
<p>3. IDAEren borondatezko etiketa</p>	
<p>(*): Horiek dira baloratzen den espezifikazio edo baldintza bakoitza betetzen dela argien bermatzen duten ingurumen-ziurtagiriak eta ekoetiketak, edo informazio jasota egon daitekeen agiriak; nolana ere, onartuko dira beste egiaztapen baliokide batzuk ere, baldin eta argi eta garbi frogatzen badute betetzen direla ezarritako baldintzak.</p>	

OHARRAK:

Dokumentu honetan garatutako irizpideez gain, interesgarriak izan daiteke ibilgailuaren ekipamendu gehigarriekin edo erabilitako olio lubrifikatzaileekin lotutako beste baldintza batzuk sartzea.

*Informazio honetan sakontzeko www.ihobe.eus webeko **Erosketa Publiko Berdea atala** kontsultatu edo lhoberekin jar zaitezke harremanetan zuzenean:*

- Tel.: 94 423 07 43
- Helbide elektronikoa: compra.publica@ihobe.eus